

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak eta Iruñeko Udalak pilota jokoaren garrantzi kulturalari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte

Astelehenean eta asteartean egingo dira, hilak 11 eta 12, "Pilota eta bere esparru kulturalak, frontoiak" lemapean, Pilota Bultzatzeko Planaren barnean

Asteartea, 2018.eko ekainak 5

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) eta Iruñeko Udaleko Komunitate-Garapena eta Tokiko Ekonomia Jasangarria arloek, Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzaren lankidetzaz, herritar guztiei irekitako jardunaldiak antolatu dituzte, pilotak nafarroako gizartean izan duen eragina aztertzeke eta Nafarroak eta Iruñeak kirol honetan izan duten garrantzia bistartzeko. Programa hau NKGIk Nafarroako Pilota Federakuntzaren lankidetzaz bultzatutako Pilota Bultzatzeko Planari atxikita dago.

Jardunaldiak astelehenean eta asteartean egingo dira, hilak 11 eta 12, Iruñeko Kondestablearen Jauregian, "Pilota eta bere esparru kulturalak, frontoiak" lemapean. Tokiko ekimen berrietarako esparrua sortzea da programa honen helburua. Horren kariaz, hitzaldiek bi ardatz izango dituzte: pilotaren ondare kultural materiala, frontoien bitartez, eta pilotaren ondare kultural immateriala, kirol honen erritualaren bitartez.

Era berean, astartean, ekainak 12, kirol hau bultzatzen duten eragileak eta erakundeak partaide izango dituen lan-tailerra eginen da, eta bertan, zenbait adituk Nafarroak eta Iruñeak tradizio honetan izan duten protagonismoa aztertuko dute, pilotak ondare kulturaltzat dituen balio eta potentzialtasunei buruzko agiria landuz. Horren harira, ikerketa eta unibertsitate arloko eragileekin lanean hasi da, Pilotaren munduko hainbat alderdi arakatzeko asmoz: historikoa, kirol arlokoa, antropologikoa, hirigintza eta lurralde antolamenduari dagokiona, eta paisajistikoa.

Jardunaldien eta tailerraren programa

Jardunaldien barnean, hainbat hitzaldi eta mahainguru bat antolatuko dira bi gai nagusi hauen inguruan: "Frontoien paisaia" eta "Pilotaren erritualak". Lehendabiziko hitzaldi-multzoa astelehenean egingo da, ekainak 11, 19:00etatik 21:00etara bitartean, eta bertan, Manuel Iñiguez & Alberto Ustárroz arkitektoek "Frontoi-plazez betetako herrialdea" hitzaldia eskainiko dute; Daniel Carballo "Pilota-jokoak erdigune historikoetan izandako ezarpena" aztertuko du, eta Olatz González antropologoak "Frontoietako kultura erronka kulturalen aurrean" delako gaiari helduko dio.

Bigarren hitzaldi-multzoa asteartean izanen da, ekainak 12, hau ere

19:00etatik 21:00etara bitartean. Honako hitzaldi hauek eskainiko ditu: “Euskal pilota jokoak ondare kultural gisa: jatorriak eta originaltasuna”, KAIT ikerketa-kolektiboko Fernando Larumbe pilotari ohiaren eskutik; “Pilota-jokoen modalitateak”, José María Echeverría pilotari ohiarekin, eta “Pilotaren etorkizunak esploratzen”, Iñigo Calzacorta pilotari ohiarekin.

Azkenik, astartean, ekainak 12, goizeko 10etan, adituen tailerra antolatuko da “Balioak eta etorkizuneko ideiak” izenburupean, “frontoien paisaia” eta “pilotaren erritualak” aztertzeko.